



FAMILIENTZAKO INFORMAZIO OROKORRA

Martxoaren 6ko 68/2024 Ebazpenean ezarritako prozedura aplikatuko zaie 2024-2025 ikasturtean ikastetxe batean matrikulaturik ez dauden hurrei, bai eta, eskolaturik egonda, Haur Hezkuntzako lehen zikloko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen dutenei ere.

Ikaspostua eska dezakete:

- 2022an eta 2023an jaiotako haurren amek, aitek edo legezko ordezkariak, baita 2024an jaiotakoenek ere, baldin eta 2024-2025 ikasturtea hasi baino gutxienez ere 16 aste lehenago jaio badira, mediku-ziurtagiria aurkeztu ondoren. Urtebetetik beherakoentzako instalaziorik ez duten ikastetxeetan, ikasturtea hasten den egunean urtebete betea duten haurrentzat bakar-bakarrik eskatzen ahalko da ikaspostua.

Haur bakoitzarentzat eskabide bakarra aurkeztuko da, behar bezala beteta.

ESKAERAK

AURKEZTEKO EPEA: 2024ko apirilaren 10etik 24ra

Tokia eta ordutegia: Ttikiena Haur Eskolan (948 38 77 30/ ttikienahe@gmail.com) edo Basaburuko Udalean (840 50 30 30/ udala@basaburua.eus), bertan, aurretik hitzordua hartuta, edo bietako edozeinetan emailaz.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Basaburuko Udalak proposatutako ereduarekin bat aurkeztuko dira eskaerak, eta, haiekin batera, honako dokumentazio hau, zeinak indarrean egon beharko baitu aurkezten den unean. Interesdunek berek aurkez dezakete dokumentazioa, edo dagokion erakunde titularrari baimena eman proposatutako datuak kontsultatu eta agiriak eskuratzeko.

A-NAHITAEZKOA:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien NANaren, AIZren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.
- Eskaera baldin bada oraindik jaio ez den haur batentzat, aurreikusitako jaiotze-data egiaztatzen duen mediku-txostena erantsiko da. Adopzio edo harrera prozesuan dauden haurren kasuan, jaiotze-data egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

B-ONARPEN-IRIZPIDEAK EGIAZTATZEKO ETA BALORATZEKO DOKUMENTAZIOA:

- LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK

- **Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea:**
 - Familia liburuaren kopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.
 - Tutoretza edo familia-harreraren kasuetan, inguruabar hori egiaztatzen duen ebazpenaren kopia.
 - Ikastetxearen ziurtagiria, alegatutako anai-arreba guztien datu pertsonalak eta matrikulatuta dauden ikasmaita zehazten dituenak.
- **Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea:**
 - Bizilekua egiaztatzeke kasuan kasuko udalak emandako errolda ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, eskaerak aurkezteko epea amaitu aurreko 90 egun



naturalean emana; hartan jasota egon beharko du haurra eta guraso edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, udalerrri horretan erroldatuta daudela 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik. Jaio gabeko haurren kasuan, gutxienez gurasoetako edo legezko ordezkarietako baten errolda ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- Lantokiaren inguruabarra egiaztatzeko, zaintza eta jagoletza duen guraso edo legezko ordezkariaren lantokia non dagoen adierazten duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.
 - Besteren konturako langileek, lantokia non dagoen egiaztatzeko, enpresaren ziurtagiria aurkeztuko dute, non agertuko baitira interesdunaren datu pertsonalak, Gizarte Segurantzako alta eta bere lantokiaren helbideari buruzko datuak, eta lan kontratuaren kopia bat ere bai. Administrazio publikoetako langileen kasuan, dagokion langileria burutzak emandako ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, interesdunaren datu pertsonalak eta lantokiaren helbideari buruzkoak jasotzen dituena. Ziurtagiri horiek eskaerak aurkezteko ohiko epea amaitu aurreko 30 egun naturalean emanak izan beharko dute.
 - Langile autonomoen kasuan, ekonomia-jardueren gaineko zergan (EJZ) alta hartuta dagoela dioen agiria aurkeztu beharko da, herriko udalak egina. Indarreko araudiari jarraikiz, legeak ez badu derrigortzen ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egotera, dagokion udalak emandako irekiera lizentziaren kopia bat edo jardueren aurretiazko jakinarazpena aurkeztuta egiaztatuko da lantokiaren helbidea; nolana ere, interesdunaren erantzukizunpeko adierazpena –lizentzia indarrean dagoela adieraztekoa– aurkeztu beharko da bi kasuetan.

- **Familia-unitatearen per capita errenta:**

- Onarpen baremoaren ondorioetarako per capita errenta kalkulatzeko, familia-unitatearen errenta izanen da errenta aitopeneko likidazio oinarriaren edo oinarrien guztizkoa. Familia-unitatearen per capita errenta honela kalkulatu da: 2022. urteko zerga-ekitaldiari dagokion guztizko likidazio oinarria zati familia-unitatearen kide kopurua 2022ko abenduaren 31n (aitortzailea, ezkontidea edo bikotekide egonkorra eta PFEZari buruzko foru araudiaren arabera kenkaria egiteko eskubidea sortzen duten pertsonak).
- 2024. urteko lanbide arteko gutxieneko soldata 15.876 eurokoa da. Honako errenta-tarte hauek hartuko dira kontuan:
 - Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada (7.938 eurokoa edo txikiagoa)
 - Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta soldata horren hiru laurden adinagoa edo txikiagoa bada (7.938 eurokoa baino handiagoa eta 11.907 eurokoa edo txikiagoa)
 - Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada (11.907 eurokoa baino handiagoa eta 15.876 eurokoa edo txikiagoa)
 - Per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa bada (15.876 eurokoa baino handiagoa)
- Errenta maila justifikatzeko dokumentazioa izanen da familia-unitatearen kide konputagarri guztien pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitopenaren fotokopia, 2022. urteko zerga-ekitaldiari dagokiona. Aitorpena egitera behartuta ez badaude, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, eta/edo bestelako errentak edo diru-sarrerak jasotzen direla frogatzen duena, edo,



azken buruan, horien zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titularra den toki-erakundeak familiaren urte horretako diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.

- Kasua bada, banantzea legez egiaztatzeko epai judiziala edo agiria aurkeztu beharko da.

- **Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek**

Desgaitasuntzat hartuko da % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna ofizialki aitorturik badago.

- Hura aitortzeko, honako agirietako baten kopia aurkeztu beharko da:
 - Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena, ziurtagiria edo txartela.
 - Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena (GSIN), ezintasun iraunkor osoagatik, ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioduna dela adierazten duena.
 - Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren edo Defentsa Ministerioaren ebazpena, lanerako ezintasun iraunkorragatik edo lanerako ezgaitasunagatik erretiro pentsioa esleitzen duena.
 - Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuko Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak emandako txartela, desgaitasun maila aitortzen duena, identifikatzeko baliozko dokumentu batekin batera.
 - Desgaitasun hori egiaztatzeko beste edozein ziurtagiri ofizial.

- **Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea**

- Irizpide hori baloratzeko, genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izaera aitortzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

- **Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egitea**

- Lehentasunezko irizpide hori baloratzeko, ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, langilearen datu pertsonalak eta plantillan duen lanpostuari dagozkionak zehaztuta.

- **Legez familia ugariko kide izatea**

Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

- **Haurra familia-harrerako egoeran egotea**

- Irizpide hau baloratzeko, harrera-egoera formalizatu dela egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

- **Familia gurasobakarra izatea**

- Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen titulu ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

- **Haurra erditze anizkoitzean jaioa izatea**

- Irizpide hau baloratzeko, inguruabar hori egiaztatzen duen agiri ofizialaren kopia aurkeztu beharko da.

Lehentasunezko irizpideak baloratu ondoren berdinketaren bat badago, martxoaren 6ko 16/2024 Foru Aginduaren 12.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, lehentasun-irizpideak aplikatuko dira, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte. Hala ere, berdinketa hausten ez bada, irizpide osagarria erabiliko da, hots, gurasoen lan-egoera edo egoera akademikoarena.

- IRIZPIDE OSAGARRIA:

- **Gurasoen edo legezko ordezkarien lan-egoera edo egoera akademikoa:**

Hau baloratzeko, bi gurasoei dagokien dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbu eta familia gurasobakarren kasuan edo familia gurasobakarra izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan.

- **LAN-EGOERA**

- Besteren kontura lan eginez gero, Gizarte Segurantzaren edo dagokion mutualitatean alta emanda egotearen ziurtagiri ofiziala, eskaerak aurkezteko epea amaitu aurreko 30 egunean emana.
- Norberaren kontura lan eginez gero, mutualitate orokorrean edo Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean eta ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiri ofiziala, eskaerak aurkezteko epea amaitu aurreko 30 egunean emana.
- Eszedentzian egonez gero hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeko, eszedentziaren jakinarazpena aurkeztu behar da. Lan-egoera aktibotzat hartzeko, idatziz zehaztu beharko da lanera itzuliko dela ikasturtea hasi ondoko hilabete eta erdi baino lehen.
- Ikasten arituz gero, matrikularen, ikasturteko egutegiaren eta ordutegiaren frogagiri ofiziala.
- Kasua bada, gurasoetako edo legezko tutoreetako bati ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat dagokiela frogatzen duen agiria.

- **EGOERA AKADEMIKOA**

- Ikasketa araututzat hartzen dira titulu akademiko ofizialak eskuratzeari begira egiten direnak: DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, unibertsitateko titulazioak eta abar. Ikasketei lehentasunezko dedikazioa ematen zaiela joko da, baldin eta interesduna matrikulatuta badago ikasturte oso bat osatzen duten kreditu edo orduen % 80an gutxienez, ikasturtean zehar eta kasuko ikasketa planaren arabera. Inguruabar hori egiaztatzeko, matrikularen egiaztargiri ofiziala eta ikasturteko egutegia eta ordutegia aurkeztu beharko dira.

Irizpide osagarria erabilita ere berdinketa mantentzen bada, Hezkuntza Departamentuak martxoaren 15ean egin duen zozketa publikoaren bidez ebatziko da.



C-HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK BALORATZEKO EGIAZTAGIRIAK:

Balorazio hori justifikatzen duten txostenak.

ZERRENDAK ARGITARATZEA

- **BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEA:** 2024ko maiatzaren 28a
- **ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA:** 2024ko maiatzaren 29tik ekainaren 3ra
- **BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEA:** 2024ko ekainaren 5a

Zerrendak argitaratzeko tokia: Basaburuko udaleko iragarki taulan eta web orrian, eta Ttikiena Haur Eskolako atarian

MATRIKULA

- **MATRIKULA EGITEA:** 2024ko ekainaren 6tik 12ra

Tokia: Ttikiena Haur Eskola (948 38 77 30/ ttikienahe@gmail.com), aurretik hitzordua adostuta
Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia, haurra inskribatua dela frogatzeko.
 - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2023ko aitortenaren fotokopia, amarena eta aitarena edo legezko ordezkariena. Aitorpen hori egin beharrik ez bada, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da edo bestelako errentak edo diru-sarrerak jasotzen direla frogatzen duena, edo, azken buruan, 2023. urteari dagozkion errenten edo diru-sarreraren gaineko zinpeko aitortpena eta/edo ikastetxearen titular den toki erakundeak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak, kalkulatzeko familiak zer diru-sarrera izan dituen urte horretan.
- Agiri hori, beranduenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2023ko aitortenaren kanpaina amaitzen den egunean aurkeztu beharko da.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituen.
 - Matrikula kontzeptuari dagokion 45€ko kuota ordaindu izanaren egiaztatzea (NAFARROAKO RURAL KUTXA ES83 3008 0033 2907 0152 1122).
 - Kasua bada, beharrezkoa den osasun informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.
 - Kasua bada, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik familia-unitateko kideen kopuruan egondako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

OHARRAK, ETA DATUAK EGIAZTATZEA

- Matrikula egiteko, beharrezkoa da haurrak 16 aste beteak izatea ikasturtea hasten denean, edo 12 hilabete, urte batetik beherako haurrentzako instalaziorik ez duten ikastetxeen kasuan.
- Ezarritako epean matrikularik egiten ez bada, ikaspostuari uko egin zaiola ulertuko da, eta beste bati esleitu zaio itxarote zerrendako hurrenkerari jarraikiz.
- Eskatutako aukeretak batean matrikula egiteak berekin ekarriko du ikastetxe bereko beste aukerei edo herri bereko beste zeinahi ikastetxetako aukerei uko egitea, ikastetxearen titularra den toki-entitateak hala ezartzen duen udalerrietan.
- Itxarote zerrendan dauden haurrak ikastetxean matrikulatzen ahalko dira, baldin eta ikastetxean ikasposturen bat hutsik gelditzen bada eta puntuazio-ordenari zorrotz jarraituta, beranduenez 2025eko otsailaren 14ra arte.
- Alegatzen den egoerari buruzko frogagiriak aurkezten ez badira, zero puntuazioa emanen da onarpen-baremoan dagokion atalean.
- Egiaztatzen bada eskabidean edo erantsitako agirietan adierazitako datuak okerrak edo faltsuak

direla, hango puntuazioa aldatuko da eta, kasua bada, emandako ikaspostua kenduko da.

- Hautapen-batzordeak eska dezake zuzendu daitezela interesdunek aurkeztutako dokumentazioak dituen akats formalak.

TARIFAK

Jantokiaren tarifak aplikatuko dira Hezkuntza Departamentuak 2024-2025 ikasturterako tarifak arautzeko emandako foru aginduan ezarritakoarekin bat.

BAREMOA

LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK	Puntuazioa
Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea	Geh. 3
Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea	Geh. 10
Udal titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerrri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan).	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan.	2
Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.	2
Familia-unitatearen per capita errenta	Geh. 3
- Lanbide arteko gutxienerako soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada (7.938 eurokoa edo txikiagoa)	3
- Lanbide arteko gutxienerako soldataren erdia baino handiagoa eta horren hiru laurden adinakoa edo txikiagoa bada (7.938 eurokoa baino handiagoa eta 11.907 eurokoa edo txikiagoa)	2
- Lanbide arteko gutxienerako soldataren hiru laurden baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada (11.907 eurokoa baino handiagoa eta 15.876 eurokoa edo txikiagoa)	1
- Lanbide arteko gutxienerako soldata baino handiagoa: 15.876 euro.	0
Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek	Geh. 2,5
- Ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren desgaitasuna.	2
- Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoen edo legezko ordezkarien edo anai-arreben desgaitasuna.	0,5
Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea	Geh. 1
Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada	1
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea	
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egiten badute.	0,8



Legez familia ugariko kide izatea	0,8
Haurra familia-harrerako egoeran egotea	0,8
Familia gurasobakarra izatea	0,8
Erditze anizkoitzean jaioa izatea	0,8

IRIZPIDE OSAGARRIA (Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)	
Familia orokorrak Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzari alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1
Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean, Gizarte Segurantzari alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1